



Oñatin, 2020ko irailaren 14a

ALOÑA MENDI ESKUBALOI SAILEKO COVID 19-AREN AURKAKO PROTOKOLOA

A) Lehiaketetarako protokoloa:

Jokalariei dagokienez:

- Kiroldegiak ezarritako sarrera-irteera zirkulazioak errespetatuko dira.
- Talde guztietako kideak kirol ekipazioa aldatuta (oinetakoak izan ezik) eta musukoa jantzita etorriko dira kiroldegira, (bai etxeakoak baita kanpokoak ere).
- Talde bakoitza kiroldegi kanpoko gunean elkartuko da eta arduradunaren betebeharra izango da taldeko partaide guztiei tenperatura hartu eta gel hidroalkoholikoa banatzea (bai etxeako taldea eta baita kanpokoak ere) instalazioetan sartu aurretik.
- Norbaitek 37 gradu gaindituko balituzke, 5 minutu barru neurrak errepikatuko da, eta berriz ere gradu horien gainetik egonez gero, ez da instalazioan sartuko.
- Etxeko taldearen kasuan, dagokion gunera zuzenduko da musukoa jantzita.
- Kanpoko taldea kiroldegian sartzeko: saileko arduradun bat beraigana hurbilduko da sarrera zirkulazioak azaldu eta partida bukaeran duxatzeko aldagelaren beharra izango duten galdetzeko. Aldagela erabiltzeko asmoa badute, sarrerako langileari giltza eskatuko diogu eta kanpoko taldeari eman. Kanpoko taldeari azaldu behar zaio:
 - Gauzak utzi ahal izateko berain gunea zein den azaldu eta aldagela, partida amaitu ostean bakarrik erabili daitekeela duxatzeko.
 - Aldagelara 4 edo 5 pertsonako taldeetan sartu behar direla (aldagelaren arabera) eta bitartean, duxatu nahi duten taldekide gehiago badaude, hauek, kantzako gunean itxaron beharko dute musukoa jantzita besteak atera arte.
 - Duxatzeko "txandak" 10 minutukoak izango dira.
 - Aldagelatik ateratzeaz bat kirol instalazioetatik kanpora aterako dira.
- Kanpoko taldeak aldagarik erabili behar ez badu, behin partida amaituta, beraien arduradunarekin kiroldegitik aterako dira irteera zirkulazioak errespetatuz.
- Etxeko taldeari dagokionez, ezingo du duxatzeko aldagarik erabili eta behin partida amaituta, talde guztia arduradunarekin kanpora aterako da irteera zirkulazioak errespetatuz.
- Goiz/Arratsalde berdinean partida bat baino gehiago badaude, bigarren partiduko taldeek takilak erabili beharko dituzte beraien gauzak uzteko (kantzako guneak okupatuta egongo dira 1. Partiduko taldekideekin).



ALOÑA-MENDI Kirol Elkartea

SAILA

- Etxeko taldea kiroldegira sartu ahal izango da partida ordua baino 1 ordu lehenago, kanpoko taldea 50 minutu lehenago eta epaile taldea 40 minutu lehenago. Dagokien gunean beraien gauzak utzi ostean, eta kantxa eremuak libre ez badaude, beroketa egitera kanpora ateratzeko aukera izango dute.
- Partida aurreko, atsedendiko eta amaierako taldekideen arteko "elkarrizketak" kantxan bertan egingo dira.
- Partidaren aurretik edo partidaren zehar komunak erabiltzeko beharra izanez gero, banaka sartu beharko da eta beti ere aforoa errespetatuz.
- Jokalari eta epaile bakoitzak bere ur botila ekarri beharko du.
- Guztiz debekatuta dago kirol instalazioetan jatea, ez kantxan, ez gradetan, ez komunetan, ezta aldageletan edo pasilloetan ere.
- Partida amaieran, talde bakoitzak sortutako hondakinak jaso beharko ditu; botila utzik balego, paperezko zapiak, tiritak, bendak, ... Horretarako, basura poltsa bana ezarriko da talde bakoitzarentzat.
- Epaile taldeak aldagelak erabili ahal izango ditu. Horretarako, sarrerako langileari giltza eskatuko diote eta Aloña mendiko arduradunak adieraziko die zirkulazio bidea.

Ikusleei dagokienez:

- Sarrerak eta irteerak tabernara igotzeko maldatik izango dira.
- Sarrera eta irteerarako sarbide bakarra dagoenez, hesi bidezko zirkulazio bat adostuko dugu pilota sailarekin batera, frontoirako sarbidea ere bertatik izango delako.
- Sarrera irteera guztiak 2 metroko segurtasun distantziak mantenduta egingo dira.
- Sarreran, eskubalo sailleko arduradun bat egongo da gradetako edukierak (90 pertsona) kontrolatzeko.
- Kantxa berdean, ikusle guztiak eserita egon beharko dira partida guztian zehar. Horretarako, erabilgarri dauden aulkiak zeintzuk diren garbi azalduta egongo da. Ezingo da partida zutik ikusi.
- Kantxa urdinaren kasuan, ez da ikuslerik izango.
- Guztiz debekatuta dago gradetan jatea.
- Kantxa berdetik tabernara dagoen sarbidea itxita egongo da.
- Dena den, kirol instalazioetako protokoloa bete beharko da.
- Eserlekuen edukierari dagokionez, sailkapen bat egingo da:
 - Bazkideak: % 90 (81 pertsona).
 - Kanpoko ikusleak: % 10 (9 pertsona).

Behin partida hasita, talde hauetako bakoitzari egokitutako edukiera betetzen ez bada, sarrera libre utziko da sartu nahi duenarentzat (beti ere, gehienezko edukiera bete arte).

Eskubalo sailleko Covid 19-aren aurkako protokoloaren arduraduna: CARLOS UGARTE

Aloña Mendi Eskubalo Saila

Atzeko-kalea, 18-20 • 20560 OÑATI (Gipuzkoa) • ☎ 943 78 08 10 (Bulegoa) • ☎ 943 71 60 57 (Taberna) • Faxe: 943 78 03 78 • e-mail: alonomendi@gmail.com

Atletismo • Saskibaloi • Eskubalo • Txirrindularitza • Futbola • Euskal Pilota • Mendi
Espeleologia • Igeriketa • Aretu-futbola • Karate • Gimnasia • Tenis • Triatlola